

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

MENDAROKO UDALA

Iragarkia

2024ko otsailaren 27an egindako Osoko Bilkuran Mendaroko Udalaren Diru-laguntzen Plan Estrategikoa onartu zen 2024-2026 ekitaldietarako, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, Planaren testu osoa argitaratzen da.

Erabakia behin betikoa da, eta amaiera ematen dion administrazio-bideari. Horren aurka berraztertze errekurtsua jarri ahal izango dute egintza eman duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkeztu, bi hilabeteko epean, Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian. Kasu honetan zein bestean argitalpena egiten den hurrengo egunetik aurrera kontatuko da epea.

Mendaro, 2024ko otsailaren 28a.—Enez Ezenarro Arriola, (1526)

2024-2026 Diru laguntzen Plan Estrategikoa

SARRERA

Oinarrizko izaera duen diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 8.1 artikulua honako hau dio: «administrazio organoek edo diru laguntzak ezartzea proposatzen duten beste guztiek, alde aurretik, Diru Laguntzen Plan Estrategiko baten zehaztu beharko dituzte horien aplikazioarekin lortu nahi dituzten helburuak eta eraginak, horiek guztiak lortzeko behar den epea, ustez egongo diren kostuak eta finantzazio iturriak. Plana burutzeko ezinbestekoa izango da beti aurrekontuen egonkortasunerako helburuak betetzea».

Azaroaren 17ko 38/2003 Legeko hamahirugarren xedapen gehigarriak ezartzen du legezko arau edo erregelamenduetan aurreikusitako politika publikoei buruzko plan edo programak Diru Laguntzen Plan Estrategikotzat joko direla edo 38/2003 Legeko 8.1 artikuluan aurreikusitako edukia jasoko dutela.

Diru Laguntzen Lege Orokorra beste urrats bat da sistema ekonomikoa hobetzeko eta arrazionalizatzeko prozesuan. Legea zuzentzen duen printzipioetako bat gardentasuna da, eta horrek modu zuzenean du eragina diru laguntzetarako gastu publikoaren kudeaketaren eraginkortasun eta efizientzia mailaren igoeran.

Zentzu horretan, diru laguntzei buruzko informazio gehiago izateak merkatuan eragina izan ditzaketen distorsio eta interferentziak kentzea ahalbideratuko du, eta administrazio publikoen jardunen osagarritasuna eta koherentzia erraztuko du, edozein motako gainjartzea ekidinez.

Eraginkortasuna hobetzeko Dirulaguntzei buruzko Plan Estrategikoa egitea aurreikusten du araudiak. Plan hori diru laguntzak sortu aurretik egin beharko da.

Plan hau hainbat urtetarako izateko bokazioz egin da, beti ere urtero beharrezko izan daitezkeen aldaketak egin beharko bazazkio ere.

AYUNTAMIENTO DE MENDARO

Anuncio

A los efectos previstos en el artículo 45 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, se publica el texto íntegro del Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento de Mendaro para los ejercicios 2024-2026, aprobado por el Pleno celebrado el 27 de febrero de 2024.

La decisión es definitiva y pone fin a la vía administrativa. Contra la misma podrán interponer recurso de reposición ante el órgano que ha dictado el acto en el plazo de un mes o recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Donostia-San Sebastián en el plazo de dos meses. En ambos casos el plazo se contará a partir del día siguiente al de la publicación.

Mendaro, a 28 de febrero de 2024.—El alcalde, Enez Ezenarro Arriola. (1526)

Plan Estratégico de Subvenciones 2024-2026

PREÁMBULO

El artículo 8.1 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, que tiene carácter básico, establece que «Los órganos de la Administración o cualesquiera entes que propongan el establecimiento de subvenciones, con carácter previo, deberán concretar en un plan estratégico de subvenciones los objetivos y efectos que se pretenden con su aplicación, el plazo necesario para su consecución, los costes previsibles y sus fuentes de financiación, supeditándose en todo caso al cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria».

La disposición adicional decimotercera de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, establece que los Planes y Programas relativos a políticas públicas que estén previstas en Normas legales o reglamentarias tendrán la consideración de Planes estratégicos de Subvenciones o recogerán el contenido previsto en el art. 8.1. de la Ley 38/2003.

La Ley General de subvenciones supone un paso más en el proceso de perfeccionamiento y racionalización del sistema económico. Uno de los principios que rige la Ley es el de la transparencia que redundará de forma directa en un incremento de los niveles de eficacia y eficiencia en la gestión del gasto público subvencional.

En este sentido, una mayor información acerca de las subvenciones hará posible eliminar las distorsiones e interferencias que pudieran afectar al mercado, además de facilitar la complementariedad y coherencia de las actuaciones de las distintas Administraciones Públicas evitando cualquier tipo de solapamiento.

Para mejorar la eficacia, se prevé en la legislación que se proceda a elaborar un Plan Estratégico de Subvenciones, con carácter previo al nacimiento de las subvenciones.

Este Plan tiene vocación de plurianual, con las revisiones que sean necesarios hacerse anualmente.

Horregatik, Udal honek Diru Laguntzen Plan Estrategikoa onartu du. Planak ondorengo artikulua ditu.

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.

Mendaroko Udalak emango dituzten diru laguntzak, Diru Laguntzen Lege Orokorraren, Plan honen, dagozkion hitzarmenen eta diru laguntzak emateko urtero egingo diren deialdien oinarrien arabera emango ditu.

2. artikulua.

Plan honetan aurreikusitako diru laguntzak eraginkorrak izateko, dagozkion kontsignazioak sartu beharko dira urte bakoitzeko udal aurrekontuetan eta diru laguntzak arautzeko oinarriak onartu.

Diru laguntzak aurrekontuetan jaso eta emateko baldintza izango da aurrekontu egonkortasun helburuak betetzea, eta beraz, onartuko diren aurrekontu kontsignazioak eta diru laguntzak arautzen dituzten oinarriak uneoro helburu horietara egokitu beharko dira.

3. artikulua.

Diru laguntza Plan Estrategiko hau onartzeak ez du inolako eskubiderik sortzen onuradun izan daitezkeenentzako, eta ezin dute inolako kalte ordainik edo konpentsaziorik eskatu Plana ez bada bere horretan betetzen.

4. artikulua.

Udalak, deialdi publiko bidez edo lankidetzak-hitzarmenak eginez, diru laguntzak emango dizkie pertsona, elkartei edo erakunde pribatuei herri onurako edo gizartearen intereseko jarduerak egiteko edo udal eskumeneko helburu publikoak lortzeko.

Debekatuta gelditzen da inolako laguntzarik edo diru-laguntzarik ematea sexu-bereizkeria egiten duen ezein jarduerari eta sexu-bereizkeriagatik zigor administratiboa edo penala jaso duen ezein pertsona fisiko edo juridiko, ez eta bere hautaketaprosesuan edo funtzio namenduan sexu-bereizkeria egiten duen edozein elkarte edo erakunderi ere.

5. artikulua.

Plan honen printzipio orokorrak honako hauek dira:

— Publizitatea eta lehiakortasun askea aurrez egindako deialdi bidez. Bertan, objektibotasuna, gardentasuna, publikitatea, lehiakortasuna eta fondo publikoen banaketan berdintasuna bermatu beharko dira, hori guztiori, emakida zuzenaren kaltetan gabe. Emakida zuzenak, aplikatu dakioken arauan ezarritakoaren arabera, aurrez dagozkion aurrekontu kontsignazioa izan beharko du.

— Aurrez deialdian ezarritako irizpide objektiboen arabera egingo da emakida, onuradun izan daitezkeenak irizpide horiek aurrez ezagutzen dituztela bermatzeko.

— Eraginkortasuna jarritako helburuak betetzerakoan eta efizientzia baliabide publikoak esleitzerakoan, kantitate eta kalitate aldetik justifikatu beharko delarik.

— Diru laguntza eskatzen duten erakundeen helburuak diru laguntzako jardueretan berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioetara egokitzen direla kontrolatzea eta aztertzea.

— Plan Estrategikoaren egokitasuna uneoro egiaztatzea. Hau da: Plana termino sozialetan justifikatzea. Planak kontuan hartzen dituen herritarren beharrak. Finantza gaitasuna. Arlo horretako udal eskumena azaltzea.

Por ello, este Ayuntamiento aprueba el Plan Estratégico de Subvenciones cuyo articulado figura a continuación.

CAPÍTULO I

DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1.

La concesión de subvenciones por el Ayuntamiento de Mendara y sus organismos dependientes se ajustará, a la Ley General de Subvenciones, al presente Plan, a los correspondientes convenios y a las Bases de las convocatorias anuales de las subvenciones.

Artículo 2.

El establecimiento efectivo de las subvenciones previstas en este Plan requerirá la inclusión de las consignaciones correspondientes en los Presupuestos municipales de cada año y la aprobación de las bases reguladoras de su concesión.

El establecimiento de subvenciones queda supeditado al cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria, por lo que las consignaciones presupuestarias que se aprueben y las bases reguladoras de su concesión se acomodarán en cada momento a dichos objetivos.

Artículo 3.

La aprobación del presente Plan Estratégico de Subvenciones no supone la generación de derecho alguno en favor de los potenciales beneficiarios, que no podrán exigir indemnización o compensación alguna en caso de que el Plan no se lleve a la práctica en sus propios términos.

Artículo 4.

El Ayuntamiento concederá subvenciones, mediante convocatoria pública o a través de la firma de convenios de colaboración, a favor de personas, asociaciones o Entidades privadas con la finalidad de fomentar la realización de actividades de utilidad pública o interés social o para promover la consecución de fines públicos atribuidos a la competencia local.

Se prohíbe la concesión de ningún tipo de ayuda o subvención a ninguna actividad que sea discriminatoria por razón de sexo ni a ninguna persona física o jurídica que haya sido sancionada administrativa o penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo y a las asociaciones y organizaciones que discriminen por razón de sexo en su proceso de admisión o en su funcionamiento.

Artículo 5.

Son principios generales de este Plan los siguientes:

— Publicidad y libre concurrencia mediante convocatoria previa en la que se garantice la objetividad, transparencia, publicidad, concurrencia e igualdad en la distribución de fondos públicos, ello sin perjuicio de la posible concesión directa que, de conformidad con lo establecido en la norma aplicable, deberá contar con la debida consignación presupuestaria previa.

— Concesión conforme a criterios objetivos previamente establecidos en la convocatoria a fin de garantizar el conocimiento previo de los mismos por los potenciales beneficiarios.

— Eficacia en el cumplimiento de los objetivos marcados y eficiencia en la asignación de recursos públicos, debiéndose justificar cuantitativa y cualitativamente.

— Control y análisis de la adecuación de los fines de las entidades solicitantes a los principios de igualdad y no discriminación en el ejercicio de las actividades subvencionadas.

— Verificar de forma constante la pertinencia del Plan Estratégico. A saber: Justificación del Plan en términos sociales. Necesidades de la ciudadanía a las que atiende. Capacidad financiera. Explicación de la competencia municipal en la materia.

6. artikulua.

Alkateak, udalerraren kudeaketa ekonomikoa egiten duenez, laguntzak edo diru-laguntzak emateko eskumena du, eta, beraz, Diru-laguntzen Plan Estrategikoa gauzatzekoa.

– Diru-laguntza programak aurrekontu zuzkidura egokia eta behar bestekoa egotearen menpe daude.

– Diru laguntzak edo emakida zuzenak (hitzarmenak) eman aurretik gastua onartu beharko da Mendaroko Udaleko aurrekontu arauetan aurreikusitako moduan.

– Eta, azkenik, diru laguntzak eman aurretik, emakida arautzen dituzten arauak edo oinarriak onartu beharko dira.

II. KAPITULUA

PLANAREN EDUKIA

7. artikulua.

Mendaroko Udalak diru-laguntzak emango ditu urtero, ondoko lerro estrategiko eta helburu zehatzen baitan:

* Lerro estrategikoa 1. Gizarte ekintza.

Helburuak:

– Gizarte kalte-beratasun egoeran dauden kasuei oinarrizko beharrak, behar zehatz eta ezohikoak, norbanakoak eta familia-koak estaltzea.

– Herritarren osasun fisikoa eta psikikoa bultzatzeko lanak eta proiektuak egiten dituzten irabazi-asmorik gabeko hainbat erakunderekin lankidetzan aritzea.

– GKEei laguntzea beraien ekimen eta lankidetzan proiektuetan herri pobrezako eta garapen bidean daudenentzako ekarpen gisa.

– Udalerriko adinekoren asoziazionismoa sustatzea, beren adinarekin bat datozen hainbat jarduera osasungarri garatzeko laguntzak emanez.

– Udalerrian alokairua sustatzea, udalerrian bertan etxebizitzaren alokairuaren kostuan partzialki laguntzeko laguntzak eskainiz.

* Lerro estrategikoa 2. Hezkuntza osagarriaren sustatzea.

Helburua:

– Hezkuntza osagarria sustatzea, musikaren eta irabazi-asmorik gabeko erakundeek egindako eskolaz kanpoko beste jarduera batzuen bidez. Jarduera horiek kultura osagarria emango diete herritarrei, alderdi tradizionalan, hala nola mendira joatea eta bertako tresnak ikastea.

* Lerro estrategikoa 3. Euskara sustatu.

Helburuak:

– Mendaron euskararen ezagutza eta erabilera sustatzea eta normalizatzea, Elgoibarko udalerriarekin partekatutako aldizkari bat argitaratuz eta udan adingabeentzako aisialdiko jarduerak eginez.

– Euskara ikasteko erraztasunak ematea helduei, euskaltegi homologatuetan, ahalik eta biztanle gehienengan gure hizkuntzaren erabilera sustatzeko.

* Lerro estrategikoa 4. Kirol eta osasunaren sustapena.

Helburuak:

– Kirola ohitura osasungarri eta gomendagarri gisa egitea sustatzea.

– Familia behartsuenei laguntzak eskaintzea, beren seme-alabek eskolaz kanpoko kirola egin ahal izan dezaten, adingaberi diskriminatuta sentitu gabe.

Artículo 6.

El Alcalde en cuanto que ejerce la gestión económica del municipio, ostenta la competencia para la concesión de ayudas o subvenciones, y, por tanto, la ejecución del Plan Estratégico de Subvenciones.

– Los programas de subvenciones quedarán condicionadas a la existencia de dotación presupuestaria adecuada y suficiente.

– Con carácter previo al otorgamiento de las subvenciones o concesiones directas (convenios), deberá efectuarse la aprobación del gasto en términos previstos en las normas presupuestarias del Ayuntamiento de Mendaro.

– Y finalmente, y de forma previa al otorgamiento de las subvenciones, deberán aprobarse las normas o bases reguladoras de la concesión.

CAPÍTULO II

CONTENIDO DEL PLAN

Artículo 7.

El Ayuntamiento de Mendaro establecerá anualmente subvenciones de acuerdo a las siguientes líneas estratégicas y objetivos específicos de actuación:

* Línea estratégica 1. Acción social.

Objetivos:

– Cubrir las necesidades básicas, específicas y extraordinarias, individuales y familiares de aquellos casos que se encuentran en situación de vulnerabilidad social.

– Cooperar con diversas entidades sin fines de lucro que realicen labores y proyectos encaminados a favorecer la salud física y psíquica de la población.

– Apoyar a las ONG en sus iniciativas y proyectos de cooperación como aportación a los países empobrecidos y en vías de desarrollo.

– Fomentar el asociacionismo de las personas mayores del municipio, proporcionándoles ayudas para desarrollar diversas actividades saludables y acordes a su edad.

– Fomentar el acceso a la vivienda del municipio, ofreciéndoles ayudas para colaborar parcialmente en el coste del alquiler de viviendas en el propio municipio.

* Línea estratégica 2. Fomento educación complementaria.

Objetivo:

– Fomentar la educación complementaria, a través de la música y otras actividades extraescolares, realizadas por entidades sin fines de lucro, que proporcionen a la población una cultura complementaria, en su vertiente tradicional como pueden ser las salidas al monte y el aprendizaje de instrumentos autóctonos, etc.

* Línea estratégica 3. Fomento euskera.

Objetivos:

– Fomentar y normalizar el conocimiento y uso del euskera en Mendaro, a través de la edición de una revista compartida con el municipio de Elgoibar, así como con actividades de ocio para menores en verano.

– Ofrecer facilidades para el aprendizaje del euskera a adultos, en euskaltegis homologados, con el fin de promover el uso de nuestra lengua en el mayor número de habitantes posible.

* Línea estratégica 4. Promoción deporte y la salud.

Objetivos:

– Potenciar la práctica generalizada del deporte como hábito saludable y recomendable.

– Ofrecer ayudas a las familias más desfavorecidas, para que sus hijas e hijos puedan realizar el deporte extra escolar sin que ningún menor se sienta discriminado.

– Kirola egiten duten irabazi-asmorik gabeko erakundeekin lankidetzan aritzea, eta horiek garatzeko diru-laguntzak eskaintzea.

– Gazteen artean kirola sustatzea, edozein kirol-diziplinatan promesa gazteak indartzeko laguntzak sortuz.

* Lerro estrategikoa 5. Kulturaren sustapena.

Helburuak:

– Auzoetan festa-jarduerak sustatzea, arreta berezia jarritz sustrai tradizional euskalduna duten eta, oro har, herritarrek euskaraz parte har dezaten.

– Herriko gazteentzako aisialdiko begiraleen euskarazko ikastaroak sustatzea, udalarekin lankidetzan jardun dezaten oporraldietan adingabeei eskaintzen zaizkien jardueretan.

– Herri mailan kultur aktibitatea mantentzen lagundu.

– Asoziazionismoa bultzatu.

– Kreatzio eta zabalkuntza artistikoa, bereziki, aisialdi elkarte inguruan, adierazpen artistiko, musikalak, eskulan edota artisautzan.

* Lerro estrategikoa 6. Etxebizitzak eta ingurumena.

Helburuak:

– Sustatzea irisgarritasuna etxebizitzetan eta laguntza ematea mugikortasuna murriztua duten pertsonen ohiko etxebizitzetarako sarbidean.

– Etxebizitzetan konponketak sustatzea, inguruzaitetik isolamendu hobea izan dezaten, energia-kontsumoa eta, ondorioz, CO₂ isuriak murrizteko.

– Udalerriko baserriei laguntzea, udan lehorte garaietan edateko urez hornitu behar baitira ur-zisternen bidez.

– Herria karraskariz garbi mantentzea, feldar biztanleekin elkarbizitza erraztuz.

* Lerro estrategikoa 7. Merkataritza suspertzea.

Helburua:

– Hiri-eremuko merkataritza suspertzea.

8. artikulua.

Eranskinean zehazten dira aurrekontuak aurreikusitako dirulaguntzak. Laguntzak ondorengo irizpideen arabera zerrendatuta agertzen dira eranskinean bakoitzean:

Aurrekontu partida.

Azalpena: Irizpide horrekin diru laguntza zein helburutarako erabiliko den zehazten da, gero helburu hori ebaluatu ahal izateko.

Zenbatekoa: Urteroko kontsignazioa.

Kudeaketa mota: Irizpide horrekin diru laguntza emateko aplikatu beharreko prozedura aurreikusten da (lehiakortasun askea, lankidetzak hitzarmena, programa).

Lerroa: Diru laguntza atxikitzen den lerro estrategikoa.

III. KAPITULUA

DIRUZ LAGUNDUTAKO PROGRAMEN ERAGINKORTASUN AZTERKETA. KONTROLA ETA EMAITZEN AZTERKETA

10. artikulua.

Diru laguntza bakoitzaren eraginkortasuna hobeto aztertzerako, diru laguntzak ematen dituzten departamenduek txosten arra-

– Colaborar con las entidades sin fines de lucro en la práctica del deporte, ofreciéndoles ayudas económicas para su desarrollo.

– Fomentar el deporte entre los jóvenes creando unas ayudas para potenciar las jóvenes promesas en cualquiera de las disciplinas deportivas.

* Línea estratégica 5. Promoción de la Cultura.

Objetivos:

– Potenciar en los barrios actividades de festejos con especial atención a aquellas de raíz tradicional euskaldun para la participación del pueblo en general y que se producen y manifiestan en euskara.

– Fomentar los cursos impartidos en euskara de monitores de tiempo libre, de jóvenes del municipio, con el fin de que colaboren con el ayuntamiento en las actividades ofrecidas a menores en períodos vacacionales.

– Contribuir al sostenimiento de la actividad cultural a nivel local.

– Impulsar el asociacionismo.

– Fomentar la creación y difusión artística, fundamentalmente en el marco del ocio asociativo, en los ámbitos de expresiones artísticas, musicales, de trabajo manual o artesanal.

* Línea estratégica 6. Viviendas y medio ambiente.

Objetivos:

– Fomentar la promoción de la accesibilidad a las viviendas y contribuir a que personas con movilidad reducida vean facilitado el acceso a las viviendas que constituyen su residencia habitual.

– Fomentar las reparaciones en viviendas para conseguir que tengan un mejor aislamiento de su envolvente, al objeto de minorar el consumo de energía y en consecuencia, las emisiones de CO₂.

– Colaborar con los caseríos del municipio, que en períodos estivales de sequía, necesitan abastecerse de agua potable a través de cisternas de agua.

– Mantener el pueblo limpio de roedores, facilitando la convivencia con la población felina.

* Línea estratégica 7. Fomento del comercio.

Objetivo:

– Fomentar el comercio en el ámbito municipal.

Artículo 8.

En el anexo de este Plan se ordenan las subvenciones previstas presupuestariamente bajo los siguientes criterios:

Partida presupuestaria.

Objeto: Bajo este criterio se especifica la finalidad para la que se destina la subvención, la cual será posteriormente objeto de evaluación.

Importe: Referido a la consignación anual.

Modalidad de gestión: Criterio que distingue la previsión en cuanto al procedimiento a aplicar para su concesión (libre concurrencia, convenio de colaboración, programa).

Línea: Línea estratégica en la que se engloba el objeto de la subvención.

CAPÍTULO III

EVALUACIÓN DE LA EFICACIA DE LOS PROGRAMAS SUBVENCIONADOS. CONTROL Y ANÁLISIS DE RESULTADOS

Artículo 10.

Para un mejor análisis de la eficacia de cada subvención, el ayuntamiento solicitará de los beneficiarios informe motivado

zoitua eskatuko diete diru laguntzak jasotzen dituztenei. Txostenean, besteak beste, garatutako ekintzen azalpena eta lortutako helburuak justifikatu beharko dira.

Zehazki, ebaluatu ahal izateko honako hauek zehaztu beharko dira:

- Helburua.
- Diru laguntza jasotzen duen erakundea, eta hala bada, laguntzailea.
- Diru laguntzaren zenbatekoa.
- Diru laguntzarekin egindako ekintza zehatzak.
- Diruz lagundutako ekintzak zenbat herritarrengan izan duen eragina.

Diru laguntza ematen duen departamenduaren balorazioa laguntza eman zenean lortu nahi ziren helburuekiko egokitasunari buruz eta dagokion programarekin jarraitzearen edo kentzearen bidezkotasanari buruz.

11. artikulua.

Gardentasuna. Lerro estrategiko bakoitzean emandako diru laguntza guztiak urtero argitaratuko dira udal webgunean, bertan adieraziz laguntzak nork jaso dituen, zenbatekoa, eta diruz lagundutako ekintza.

12. artikulua.

Planaren indarraldia amaituta, eta berria egin aurretik, Alka-teak ebaluazioa egingo du Ogasun Batzordean. Bertan, gutxienez, honakoak jaso beharko dira: Planaren betetze maila, lortu nahi ziren helburu eta eraginetan diru laguntzek izan duten eraginkortasuna eta efizientzia eta ondorioak; eta horrekin batera, hurrengo Diru Laguntza Plan Estrategikoa egiteko iradokizunak.

IV. KAPITULUA
FINANTZAKETA

13. artikulua.

Mendaroko Udalak eta bere menpeko erakundeek ematen dituzten diru-laguntzak Erakunde bakoitzaren Aurrekontuen IV kapituluaren kontura izango da. 2024 urterako, hasieran aurreikusitako zuzkidura ekonomikoa hau da: 232.900 l. eranskina.

Azken xedapena.

Plan hau indarrean sartuko da behin betiko testua Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuta, Toki Erregimeneko Oinarrien Legeko 70.2 artikulua xedatzen duena aintzat hartuta, eta indarrean jarraituko du Udalaren udalbatzarrak aldatu edo derogatzea erabaki arte.

sobre el número de acciones desarrolladas y justificación de los objetivos alcanzados.

En concreto se deberá detallar para la evaluación lo siguiente:

- Objeto.
- Entidad beneficiaria y, en su caso, colaboradora.
- Importe subvencionado.
- Acciones concretas desarrolladas en el importe de la subvención.
- Número de ciudadanos a los que ha alcanzado la acción subvencionada.

Se valorará por el ayuntamiento la adecuación a los objetivos perseguidos al tiempo de su otorgamiento y la procedencia del mantenimiento o supresión del programa del que trae causa.

Artículo 11.

Transparencia. Todas las subvenciones concedidas en cada una de sus líneas estratégicas, serán publicadas anualmente en la Web municipal, indicando entidad receptora, cuantía y proyecto que se subvenciona.

Artículo 12.

Finalizada la vigencia del Plan, y antes de la elaboración del siguiente, el Alcalde evaluará ante la Comisión de Especial de Cuentas, el grado de cumplimiento del Plan, la eficacia y eficiencia del otorgamiento de subvenciones en la consecución de los objetivos y efectos pretendidos y conclusiones, con propuesta de sugerencias para la elaboración del siguiente Plan Estratégico de Subvenciones.

CAPÍTULO IV
FINANCIACIÓN

Artículo 13.

La financiación de las subvenciones que conceda el Ayto. de Mendaro se llevará a cabo con fondos propios con cargo al capítulo IV de los Presupuestos de cada entidad del ejercicio en vigor. Para el año 2024 la dotación inicial prevista asciende a 232.900 euros. Anexo 1.

Disposición final.

El presente Plan entrará en vigor una vez publicado su texto íntegro en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa a los efectos previstos en el art. 70.2 de la Ley de Bases de Régimen Local, permaneciendo en vigor hasta su modificación o derogación expresa que deberá acordarse por el pleno del Ayuntamiento.

ERANSKINA 1 / ANEXO 1

Partida eta azalpena Partida y objeto	Zenbatekoa Cantidad	Kudeaketa Gestión	Lerroa Línea
1 0230.471.01.241.00 2024 (535)	9.000,00	Lehia askea Libre competencia	7
HERRIKO EKON. SUSTATZEKO			
1 0230.480.01.152.10 2024 (379)	2.000,00	Lehiarik gabeko konkurrentzia Concurrencia no competitiva	1
ETXE ALOKAT. LAGUNTZA			
1 0230.480.01.230.00 2024 (647)	5.000,00	Lehiarik gabeko konkurrentzia Concurrencia no competitiva	1
BAZTERK. ETA LARRIALDI. LAGUN.			

Partida eta azalpena Partida y objeto	Zenbatekoa Cantidad	Kudeaketa Gestión	Lerroa Linea
1 0230.480.01.335.00 2024 (105) EUSKARA SUSPERTZ.	2.000,00	Lehiarik gabeko konkurrentzia Concurrencia no competitiva	3
1 0230.481.01.326.00 2024 (648) AMEIKUTZ MUSIKA ESKOLA	25.000,00	Nominatiboa Nominativa	2
1 0230.481.01.326.10 2024 (649) ARNO GURASO ELKARTEA	29.000,00	Nominatiboa Nominativa	2/4
1 0230.481.01.326.20 2024 (650) ZIZTU ELKARTEA	800,00	Nominatiboa Nominativa	2
1 0230.481.01.330.00 2024 (103) KULTURAKO EGITASMOAK EGITEKO	10.000,00	Lehia askea Libre competencia	5
1 0230.481.01.335.00 2024 (109) ELGOIBARKO IZARRA	16.300,00	Nominatiboa Nominativa	3
1 0230.481.01.338.00 2024 (106) AINGERU GUARDAKO JAIK	1.000,00	Nominatiboa Nominativa	5
1 0230.481.01.338.10 2024 (651) TRINITATE JAI BATZORDEA	1.300,00	Nominatiboa Nominativa	5
1 0230.481.01.338.20 2024 (652) ANDRA MARI JAI BATZORDEA	1.000,00	Nominatiboa Nominativa	5
1 0230.481.01.341.00 2024 (108) TXIRRINDULARI ELKARTEARI	8.000,00	Nominatiboa Nominativa	4
1 0240.480.01.230.00 2024 (137) TRANSF. FAMIL.: GIZA LARRIALDIETAKO	45.000,00	Lehia askea Libre competencia	1
1 0240.481.01.230.00 2024 (138) TRANSF.: ETEKINIK GABEKO ELKARTEEI	10.000,00	Lehia askea Libre competencia	1
1 0240.481.01.230.10 2024 (139) TRANSF.: JUBILATUEN ELKART.	3.500,00	Nominatiboa Nominativa	1
1 0320.480.01.134.00 2024 (532) AUZO TAXIA	2.500,00	Lehia askea Libre competencia	1
1 0321.481.01.163.00 2024 (371) DIRULAGUNTZA KATUBELTZ-I	1.000,00	Nominatiboa Nominativa	6
1 0350.480.01.414.00 2024 (146) FAMILI TRANSF.: BASERRIETAKO URAK	900,00	Lehiarik gabeko konkurrentzia Concurrencia no competitiva	6